BIZITEGI ERAIKINA — SEKUNDINO ESNAOLA PLAZA 7

C MAILA

Egilea eta data: Pablo Zabalo, 1930

Deskribapena

Etxadiburua. Behe oinaz eta tarteko oinaz gain, sei altuera ditu, maila bakoitzeko bi etxebizitzaz, mehelinari atxikitako eskailera batetik, eta patioko eta zerbitzuko erdigune batetik abiatuta. Tarteko urrats eta obra bat da lengoaia eklektiko batetik adierazpide moderno baterako bilakaeran. Begiratoki tradizionala fatxadaren gainerakoaren forma berberak dituen irtengune bihurtzen da, elementu irtenen bidez plano nagusia berdintzeko joerarekin. Bestalde, izkinetan goratzen diren dorreen oroitzapenari, eta, fatxadaren hasieran eta erematean, balkoi jarraituen erabilera tradizionalari eusten die.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:
- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
- B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.